

# zumaia

16. zenbakia • 2011ko abuztua

# ZU

udalaldizkaria



Zumaia Udala



## Etorkizuneko Zumaiarako bidea egiten

*Udal berria ekainean hartu zuten kargua alkateak eta zinegotzi berriek, eta batzordeak eratu ondoren, Zumaia hobetzeko lanean ari dira*

# aurkibidea

2 Txalupa zerbitzua

3 Inkesta

4 Udala zuzenean / Fototeka

5 Erromesentzat aterpea

6 Motxian

8 Udal berria

12 Turismoa erronka

14 Urola Itsasadarra

16 Odieta eraberrituta

17 Musika Jaialdia

18 Alderdien iritziak

Zumaiatik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu *Zumaiazu* aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria 943 86 50 25 telefonoan.

Argitaratzailea: Zumaiaiko Udala  
Egilea: Prentsa bulegoa  
Argazkiak: Zumaiaiko Udala eta EREGI, Euskara eta Komunikazioa

Diseinua: EREGI, Euskara eta Komunikazioa  
Ale kopurua: 4.500 ale  
L.G: SS-139-2009

Paper birziklatuan egina 

# udal zerbitzua; txalupa zerbitzua



Txomin Agirre kaia eta Santiago hondartza lotzen dituen txalupa zerbitzua abian da ekainaren erditik aurrera, aurten ere. Egunero-egunero prest izaten da txalupatxoak herritik Santiago hondartzarako garraio lanak egiteko.

Irailaren 15a arte egunero-egunero eskainiko du Zumaiaiko Udalak zerbitzu hori. Zerbitzu horren bidez, herritarrek zein herrira bisitan etorri direnek, herriaren erdigunetik Santiago hondartzarako tartea egiteko garraio publikoa dute.

Txalupa zerbitzu hori goizeko 11:00etatik 20:00ak izaten da abian. Kaien puntuetan eta erdietan har daiteke txalupa, eta Santiago hondartzan, aldiz, laurden eta laurden gutxiagotan. Bidaia batek euro bat balio du, eta joan etorriak, berriz, euro eta erdi.

*El servicio de transporte en barco que se realiza entre Txomin Agirre y la playa de Santiago, está a disposición de todos y todas desde mediados de junio. El barco recorrerá todos los días hasta el 15 de septiembre el trayecto entre esos dos puntos del pueblo. El servicio empieza en marcha a las 11:00 de la mañana, y su último viaje termina a las 20:00. La ida cuesta un euro, pero si compras el billete de ida y vuelta su coste es de 1,5 euros.*

# Zer iruditzen zaizkizu Zumartianek antolatutako ekimenak?



Jacinto Domínguez

Oso ondo iruditzen zait horrelako ekintzak antolatzea herrian. Azken finean, bakoitzak asmatu behar du garaiotan nondik atera ditzaken sos apurrak, eta era horretako ekintzekin asmatzen badute horretan, beraiantzat askoz ere hobeto.

*Me parece estupendamente que organicen distintas actividades en el pueblo. En estos tiempos de crisis cada cual tiene que moverse para sacar su dinero. Si con estas actividades lo hacen, perfecto.*



Joaquin Vallejo

Niri oso ondo iruditzen zait horrelako ekintzak osatzea herrian. Azken finean bizia sortzen dute kaleetan, eta hori pozgarria da. Bai merkatari eta ostalarientzat zein herritarrontzat ere aberasgarriak dira ekintza horiek.

*Estas actividades dan vida al pueblo, y es de alegrarse que la gente organice cosas como las que organiza la plataforma Zumartian. Es enriquecedor para ellos y en general para la ciudadanía de Zumaia lo que hacen.*



Ramon Trufero

Horrelako ekintzak herritik sortzea oso aberasgarria da. Izan ere, ekintza horien bidez kanpoko herrietatik jendea etortzen da, eta horrela Zumaia ezagutarazi daiteke, besteak beste. Ekintza horien bidez kaleak ere betetzen dira, eta hori ere pozgarria da.

*Ver que estas cosas se organizan desde el pueblo es de alegrarse. Mediante estas actividades se da a conocer Zumaia, y eso es muy bueno. También se llenan las calles con dichas actividades.*



Alberto Esnal

Zumartian plataformaren bidez herriko eragileek ekimen ezberdinak sortu eta antolatzea oso ondo iruditzen zait niri pertsonalki. Nik ahal dudan guztietan parte hartzen dut ekintza horietan, gustatzen zaizkin antolatzen dituzten egun eta ekintzak.

*Que distintos agentes del pueblo organicen mediante la plataforma Zumartian algunas actividades es muy bueno para el pueblo. Yo, cuando puedo suelo visitar o suelo participar en dichas actividades.*

## udala zuzenean



**h**asi da Legegintzaldi berria, eta osatu dugu zinegotzian lan talde berria. Desberdintasunetik hasi eta akordioak sortu, eta guztion artean Zumaia etorkizun oparo batera emateko aukera ederra daukagu.

Alderdikierietan itsutu gabe, egin dezagun herritarrek eskatzen digutena, eta sortu dezagun zumaiar guztion artean amesten dugun Zumaia hori. Bere txikitasunean, handi bihur dezagun gurea. Gizalegez, berdintasunean eta bakean sortu dezagun guztion herria.

**C**on el comienzo de la nueva legislatura ya hemos organizado el equipo de trabajo de los nuevos concejales. Tenemos una buena oportunidad de obtener acuerdos partiendo desde donde no las haya, y de llevar a Zumaia a un futuro prospero.

Hagamos lo que nos pida la ciudadanía sin cegarnos en intereses partidistas, y sigamos construyendo esa Zumaia que todos y todas soñamos. Hagamos Zumaia grande en su pequeñez; siempre desde el respeto, desde la igualdad y desde la justicia.

## Fototeka



**n**olakoa zen garai bateko Zumaia? Udala, galdera horri erantzun eta herritarrei ezagutarazteko asmoarekin ari da eratzten Zumaia argazki zaharren artxiboa. Helburua zumaiarrek herriko ondarea bilatzeko eta zabaltzeko lanean parte hartzea da. Zuk ere 1975. urtea baino lehen ateratako argazkiren bat aurkitzen baduzu, aurkeztu ezazu kultur bulegoetan eta baliteke hurrengo udal aldizkarian argitaratuta ikustea.

Argazki artxibo osoa [www.euskomedia.org](http://www.euskomedia.org) helbidean dago ikusgai.



Amaya Hotela izugarrizko jendetzarekin. Azkeneko solairua eraikia duenez, azken garaikoa da. Luis Martínez Kleisserrek bultzatu zuen Zumaia argazki turismoa suspertu nahian. 1923. urtean eraiki zen bi solairu eta antzokiarekin. Kotxeentzako garajea 1946. urtean eraiki zen eta pilotaleku eta igerilekua 1952. urtean. 1977. urtean bota egin zen.

*El Hotel Amaya lleno de gente. Al tener construido la última planta se trata de la última época del hotel. Fue un proyecto de Luis Martínez Kleisser para fomentar el turismo. Se construyó en 1923 con dos plantas y un teatro. El parking para coches fue construido en 1946 y la piscina y el frontón en 1952. Se derrumbó en 1977.*



Jendea Itzurungo hondartzan. Antza denez, irudia XX. mendé hasierakoa da.

*La gente en la playa de Itzurun. Parece que la imagen es de principios del siglo XX.*

## Erromesentzat aterpea

**San Jose komentuan Done Jakue bidea egiten ari diren erromesentzako aterpetxea egokitu du Udalak, aurten ere.**



**a**urten bigarren urtez jarraian, Done Jakue bidea egiten ari diren erromesentzat udal aterpetxea egokitu da San Jose komentuan. Uztailaren 1ean ireki zen, eta ordutik, egunero-egunero handik eta hemendik etorritako erromesen aterpe izan da.

San Jose aterpetxean 30 erromesentzako lekua dago egokituta. Ez da luxuzko zerbitzurik eskaintzen, aterpetxe xumea da, baina bai harrera eta aterpetxe txukun baten zerbitzuak eskaintzen dira bertan.

Orokorrean, erromesak "gustura" izaten dira komentuan. Gainera, eraikin berezia da komentua, eta erromesak harriduraz agertzen dira lehenengo, espero ez duten zerbaitekin egiten baitute topo. Gau batez behintzat, oso eraikin berezian hartzen dute ostatu.

Gertuko eta urrutiko erromesak pasatu dira uztailean zehar: "Denetik dabil. Bai bertakoak eta baita atzerritarrak ere. Azken egunotan, adibidez, atzerritar asko dabil. Atzerritar gehienak europarrak izan ohi dira, baina korearrak eta Zelanda Berriko batek ere hartu dute ostatu gurean", azaldu dute arduradunek.

Banaka, binaka, hirunaka edo taldeka. Era guztietara etorri ohi dira erromesak. Batzuk, bideari batera ekindakoak izaten dira, beste batzuetan aldiz, Santiagorako bideak elkartu dituela etortzen dira batera. Aterpetxean, inoiz ez dute jakiten eguna bukatzerako zenbat lagun izango diren apopilo: "Jendea boladaka ibiltzen da, eta inoiz ez duzu jakiten gauean zenbat lagun izango diren lotan. Egun batean gutxi batzuk egon daitezke, eta hurrengo egunean mordoska. Inoiz ezin da jakin", azaldu dute arduradunek.

**P**or segundo verano consecutivo, el Ayuntamiento de Zumaia ha habilitado el convento San Jose como albergue municipal para los peregrinos que pasen por Zumaia en el camino de Santiago. El albergue municipal se abrió el 1 de julio, y estará abierto hasta el 31 de agosto.

*En el albergue hay 30 camas, y aunque no tenga mucho lujo, es limpio y se ofrece atención y servicio adecuado.*

*Según los responsables del albergue, "los peregrinos al principio se sorprenden con el albergue, ya que es un edificio atípico para ser un albergue, pero luego suelen estar contentos", señalan.*

## Obrak bide onetik doaz



Jadarre auzoa eraberritzeko 2. faseko lanak bide onetik doaz. Lehen fasean irisgarritasuna hobetzeko igogailua ezarri zen, besteak beste. Eta bigarren fase honetan, auzo horretako osasungarritasuna hobetzeko ur-hornidura berritu da. Horretaz gain, irisgarritasuna hobetzen segitzeko mendi magalaren eta errepidearen artean horma bat eraiki da. Hormaren ondoan doa herriaren erdigunea Narruondo auzoarekin lotuko dituen pasealekua eta bidegorria.

Azken obra horiek ekainean hasi ziren, eta Zumaiako Udalak obra horien lehen fasea esleituko du. Hau da, erdigunetik txikiardiko biribilgunerainoko zatian egokituko ditu pasealekua eta bidegorria. Ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eginbeharra izango da biribilgunetik Narruondo auzorainoko bidea egokitzea.

*Las obras de la segunda fase de la rehabilitación de Jadarre, van en buen camino. En la primera fase de las obras se hizo, entre otras obras, el ascensor para mejorar la accesibilidad de dicho barrio. En esta segunda fase, se están realizando algunas obras para mejorar la salubridad de ese entorno. Pero también siguen las obras de accesibilidad. Las obras para la construcción del carril bici y el paseo a Narruondo, también va en buen camino. Estas obras, también se realizarán en dos fases. En esta primera fase, se están habilitando el carril bici y el paseo hasta la rotonda de Txikiardi.*

## Flysch Trail Lasterketa paregabea




Uztailaren 10ean jokatu zen aurtengo Flysch Trail Mendi lasterketa, eta Aitor Osa eta Ana Conde izan ziren aurtengo edizioko onenak. Osak 2 ordu 14 minutu eta 46 segundo behar izan zituen helmugara iristeko, eta Condek, berriz, 2 ordu 45 minutu eta 44 segundo behar izan zituen. Mutiletan, bigarren eta hirugarren Walter Becerra eta Luis Alberto Hernando izan ziren, hurrenez hurren. Nesketan, aldiz, Nuria Dominguez (2:54:29) eta Montserrat Vazquez (3:01:17).

Lasterketaren antolatzaileak "oso gustura" azaldu ziren Flysch Trail lasterketaren antolaketarekin. Horien ustez, "10 bat atera zuen lasterketak", azaltzen zuten probaren osteko egunetan. Denean bezala, badira hurrengo urtean zuzentzeko apuntatutako ohartxo batzuk, "baina orokorrean oso gustura" daude Flysch Trail lasterketarekin.

*En la edición del Flysch Trail de este año, los mejores han sido Aitor Osa y Ana Conde. La prueba se jugó el 10 de julio, y según los organizadores, la valoración de la prueba es "muy buena". "La carrera sacó un 10, y estamos muy contentos", añaden. Pero también se han dado cuenta de algunos pequeños detalles para mejorar que siempre quedan para la siguiente edición.*

## Uztaila udalekuetan

---



Aurtengo uztailean ere, Udalekuak izan dira Zumaian. Oraingoan, 367 haurrek hartu dute parte, eta egunero-egunero ekintza ezberdinez gozatzeko aukera izan dute haurrek. Horien kargu ibili dira 38 begirale. Aipatzekoa da, aurtengoan 3 eta 5 urte bitarteko haurren kopurua. Izan ere, adin tarte horretako ia 200 ume ibili dira udalekuetan.

Uztaileko eguraldi txarra medio, zenbait ekintza egokitu eta beste zenbait egunez aldatu behar izan dituzte. Baina ekintzak aurrera atera eta umeak ongi pasatzeko bidea egin dute. Nahiz eta eguraldiak hainbat oztopo sortu, udalekuetako zuzendaritza batzordeak orokorrean balorazio "oso positiboa" egiten du.

Horretaz gain, zuzendaritzakoek eskerrak eman nahi dizkiete haurren gurasoei udalekuen inguruan izandako jarrera bikainarengatik.

*Este año, también se han organizado colonias en Zumaia. En total han participado 367 niños y niñas, y a su disposición han tenido 38 monitores y monitoras. Por culpa del mal tiempo de julio algunas actividades se han tenido que cambiar de día o se han tenido que adaptar para poderlos realizar. La dirección dar las gracias a los padres y a las madres por su buena conducta y la comprensión que han mostrado.*

---

## Merkatariak ekimen ugari

---



Zumartian plataformaren bidez, azken aldiak Zumaia merkatariak hainbat ekimen desberdin antolatu dituzte. Hala nola, azken hilabeteotan ostegunero-ostegunero herriko zenbait tabernetan (Zumartia plataformako kide direnetan) pintxo-potea egin ohi da. Hala, pintxo bat eta trago bat euro eta erdian eskuratzeko aukera izan da.

Ekimen hori abian jarri zenetik, harrera ona izan du herritarren artean, eta herr. iko kaleetan giro apartaz gozatzeko aukera izan da. Udan, oporraldi txiki bat egingo dute, baina irailean berriro hasiko dira martxan, udazkenarekin batera. Pintxo-poteaz gain, ordea, Slow Zumaia ekimena edo Stock azoka ere egin dituzte herriko merkatariak herria bizitu eta beren buruak ezagutzera emateko.

*Los comercios de Zumaia llevan ya un tiempo organizando mediante la plataforma Zumartian, distintas actividades. Una de ellas, ese I pincho poteo que se ha realizado todo los jueves en Zumaia. Con esta actividad, se ha conseguido que los jueves a la tarde las calles de Zumaia tengan vida, y así se han impulsado los comercios y bares del pueblo. En agosto, esta actividad se tomara un descanso, pero el septiembre se retomara con más fuerza todavía. La plataforma Zumartian también ha organizado otras actividades como Slow Zumaia o el mercado de stock.*

## Erronka berriei aurre egiteko prest

Udal berria osatu ostean, batzordeak osatu, batzordeburuak zehaztu eta Zumaia etorkizun oparora emateko lanean dihardute Udalean.

*Zumaia avanza, paso a paso, respondiendo a las peticiones y necesidades de la ciudadanía.*



**h**asi da abian legegintzaldi berria, eta horrekin batera, hasi dira Udaleko kargudun berriak beren zereginetan. Hori horrela batzorde eta kargudun berriak zehaztu berri dira Zumaia Udalean. Maiatzaren 22an izan ziren Udal eta Foru hauteskundeetan herritarrek Bildu koalizioari emandako konfiantzak eman du Iñaki Agirrezabalaga berriro alkatezara. Bigarren legegintzaldian jarraian izango da alkatea. Bilduk Udal Gobernuaren osatzeko, Aralar du bidelagun legegintzaldi honetan. Oposizioan, berriz, EAJ eta PSE-EE arituko dira lanean. Hauteskundearen emaitzen ondorio da, baita ere, PP eta H11! ordezkaritza ez izatea legegintzaldi honetan Zumaia Udalean.

Ekainaren 11n izan zen kargu hartzeko plenoa, eta ordutik herritarren beharretara egokitutako Udal berri eta egoki bat

osatzeko lanean ari da Udal Gobernuaren. Bide horretan, uztailaren 14an egin zen ez ohiko plenoan, eratu berri diren batzordeen berri eman zen. Horrekin batera, batzorde horietako kide eta batzordeburu nortzuk izango diren ere azaldu zuten.

Guztira, 10 batzorde eratu dira, aurreko legegintzaldian bezala: Hirigintza eta Zerbitzuak, Ingurumena, Ogasuna, Pertsonala, Euskara eta Hezkuntza, Kirolak, Turismoa eta Merkataritza, Gizarte Zerbitzuak eta Herritarren Partaidetza, Berdintasuna, Gaztedia eta Etorkinak. Hala ere, nahiz eta 10 batzorde eratu, batzordeen eraketan egokitzapen batzuk egin dira, eraginkortasuna medio.

Batzordeak osatu berritan, eta lanean dira zinegotziak Zumaia herriaren etorkizuna herritarrek nahi bezalakoa, eta herritarrei egokiturikoa egiteko.

### **Liberatu bat, alkatea**

Uztailaren 14ko ez ohiko plenoan erabaki zen bezala, Zumaia Udalean Iñaki Agirrezabalaga Alkatea izango da liberatu bakarra, lanaldi osoan. Udalhitzen arabera 19. maila izango du, eta urtean 41.022, 66 euroko soldata gordina izango du. Beraz, hileko soldata garbia 2.016 euroko soldata garbia izango du. Bozketan, Bildu (6) eta Aralarrek (1) alde bozkatu zuten. Abstenitu egin ziren EAJ-PNV (5) eta PSE-EE (1). EAJren ustez, Zumaia alkateak hori baino maila altuagoa eta soldata handiagoa izan behar ditu kudeaketa eraginkorra eta dedikazio osoa izateko. Horren aurrean, Iñaki Agirrezabalaga Alkateak eta Bildu koalizioa bozeramaileak, jasoko duen soldata duina dela azaldu zion, eta soldata eta dedikazioa ez dituela elkarlotzen ere gaineratu zuen plenoan.

**C**on el comienzo de la nueva legislatura, ya han empezado los nuevos concejales del Ayuntamiento de Zumaia a trabajar

en sus nuevas tareas. En este sentido en el pleno del 14 de julio quedo organizado el ayuntamiento en su totalidad.

Dando seguimiento a la legislatura anterior se han mantenido las 10 comisiones, aunque se han tenido que hacer pequeñas adecuaciones.

## Zinegotziak:

### Bildu:

1. Iñaki Agirrezabalaga.
2. Acis Alberdi.
3. Maitane Agirre.
4. Iñaki Ostolaza.
5. Arritokieta Gonzalez.
6. Eneko Agirre.

### EAJ:

1. Montse Arana.
2. Miren Edurne Egaña.
3. Juan Carlos Zendoia.
4. Ana Arranz.
5. Isidro Maria Fernandez.

### PSE-EE:

1. Emiliano Cabañas.

### Aralar:

1. Aitor Leiza

## Batzordeak

### Hirigintza eta Zerbitzuak

#### Batzordeburua

Iñaki Agirrezabalaga

#### Batzordekideak:

Azis Alberdi  
Ana Arranz  
Isidro Fernandez  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Ingurumena

#### Batzordeburua:

Aitor Leiza

#### Batzordekideak:

Iñaki Agirrezabalaga  
Azis Alberdi  
Ana Arranz  
Isidro Fernandez  
Emiliano Cabañas

### Ogasuna

#### Batzordeburu:

Arritxu Gonzalez

#### Batzordekideak:

Iñaki Ostolaza  
Edurne Egaña  
Montse Arana  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Turismoa eta Merkataritza

#### Batzordeburua:

Arritxu Gonzalez

#### Batzordekideak:

Iñaki Agirrezabalaga  
Isidro Fernandez  
Juan Carlos Zendoia  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Pertsonala

#### Batzordeburua:

Iñaki Ostolaza

#### Batzordekideak:

Arritxu Gonzalez  
Montse Arana  
Edurne Egaña  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Kirola

#### Batzordeburua:

Iñaki Ostolaza

#### Batzordekideak:

Eneko Agirre  
Montse Arana  
Ana Arranz  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Euskara eta Hezkuntza

#### Batzordeburua:

Azis Alberdi

#### Batzordekideak:

Iñaki Ostolaza  
Montse Arana  
Edurne Egaña

Aitor Leiza

Emiliano Cabañas

### Kultura

#### Batzordeburua:

Eneko Agirre

#### Batzordekideak:

Iñaki Agirrezabalaga  
Montse Arana  
Juan Carlos Zendoia  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas

### Herritarren partaidetza, etorkinak, berdintasuna eta Gaztedia

#### Batzordeburua:

Maitane Agirre

#### Batzordekideak:

Iñaki Agirrezabalaga  
Edurne Egaña  
Montse Arana  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas


### Gizarte zerbitzuak

#### Batzordeburua:

Iñaki Agirrezabalaga

#### Batzordekideak:

Maitane Agirre  
Montse Arana  
Juan Carlos Zendoia  
Aitor Leiza  
Emiliano Cabañas



Bilduk eta Aralarrek osatuko dute legegintzaldi honetan Udal Gobernuua, eta Bilduk aurreko legegintzaldian bezalako, udal irekia eta gardena osatzea du helburu. Aurreko legegintzaldian horretarako zenbait mekanismo jarri ziren abian, eta bide berean lan egingo dute hemendik aurrera ere. Iñaki Agirrezabalagaren hitzetan, "ekonomikoki legegintzaldi zaila izango da oraingo hau. Udala ongi eta zorrotz kudeatu behar dugu, Zumaiaren eta zumaiarren beharrei dagokion erantzuna emateko", azaldu du. Bildu koalizio berria da, lan taldea ere berria da, baina Iñaki Agirrezabalaga bera, aurreko legegintzaldian Alkate izatetik dator: " Ez da aurrekoan bezala. Oraingo legegintzaldi honetan ez gara Otik hasi. Badakigu zer dagoen, eta zumaiarrek zer nahi duten, eta erabakiak hartzeko garaian oso garrantzitsua da hori", gaineratzen du. Horretaz gain, erabakiak legegintzaldiaren hasieran hartzeak duen garrantziaren jakitun da: "Zenbait erabaki legegintzaldi hasieran hartzea komeni da. Gero

legegintzaldiaren bukaera txukuna egiteko", beraz, beti etorkizunera begira hartuko dituzte erabakiak.

Legegintzaldiaren erronkei aurre egiteko prest da Bildu, eta bidelagun Aralar izateak duen garrantziaz ere jakitun da: "Gu koalizio irekia gara, eta sentsibilitate eta ikuspegi ezberdinetako jendea gaude bilduta. Beti ere, ezkertiar eta abertzaleon koalizio da, eta bide horretan, uste dugu gure politikak eta Aralarrekoenak batzeko aukera paregabea dugula".

Agirrezabalagak datozen lau urteak aurrekoak baino baketsuagoak izatea espero du: "Ez dugu alderdien ikamiketari aritu nahi. Herritarrak dira guretzat garrantzitsuenak, eta herritarrek gu aukeratu gaituzte herria gidatzeko. Beraz, horretan zentratu nahi dugu, eta ez alderdien arteko eztabaidetan", azaltzen du. Udal irekia eta elkarlanean osatutakoa izatea lortu nahi dute. Desberdintasunak desberdintasun, akordioak lortu nahi dituzte ahal diren

alde guztiekin. Alkateak "ulermenerako, sentsibilizaziorako eta elkarlanerako" deia egiten die Udal taldeei zein herritarrei.

Aitor Leiza izango da Aralarrek Zumaiako Udalean izango duen ordezkari bakarra, eta Ingurumen zinegotzia izango da. Leizak, gogotsu hasi du legegintzaldia: "Era pertsonalean, uste dut, datozen urteetan urola itsasadarraren inguruko plan berezia mahai gainera irten behar duela, eta arlo horretan lan egiteko gogotsu nago", adierazi du.

"Orain artean hirigintza eta ingurumen batzordeak batera egin ohi ziren, eta orain bakarka landuko dira. Beraz, arlo bakoitza hobeto lantzeko aukera izango dugu", gaineratu du.

Zenbait gaitan bere ideiak eta kasu batzuetan bere botoa "erabakigarriak" izan daitezkeela uste du Leizak. Udal Gobernuan sartzea erabakitzeak, Ingurumen zinegotzi izatera eraman du Leiza.

*Las 10 comisiones son: las siguientes: Urbanismo y Servicios, Mediomambiente, Hacienda, Personal, Euskera y Educación, Deportes, Turismo y Comercio, Servicios Sociales, Participación Ciudadana, Igualdad, Juventud e Inmigración.*

### **Equipo de Gobierno**

*El Equipo de Gobierno formado por Bildu y Aralar tiene como objetivo formar un ayuntamiento transparente y abierto. Para ello, en la legislatura anterior se pusieron en marcha algunos mecanismos, y tienen la*

*intención de seguir y mejorar los mismos. Bildu es una nueva coalición y un grupo de caras nuevas, pero Iñaki Agirrezabalaga repite como alcalde, por lo cual esta vez no les toca empezar desde 0.*

*Aralar por su parte, espero que no*



Legegintzaldi honetan, EAJ eta PSE-EEk oposizioa egiten segituko dute, aurreko legegintzaldian bezala. EAJak aurrekoan baino zinegotzi bat gehiago du, eta PSE-EEk aldiz, bat gutxiago.

EAJk zehaztuta ditu Udalaren lehentasunak zein izan behar duten: "Alde batetik, Udalaren egoera ekonomikoa ikusi eta planteamendu ekonomiko-finantziario zorrotz bat egin ondoren, inbertsio ahalmena berreskuratzea beharrezkoa dela uste dugu. Herria geldirik egon ez dadin", azaltzen dute. Horretaz gain, beharrezkoa ikusten dute Udal langileen zerrenda aztertu, eta beharren araberako egokitzapenak egitea, herria txukun mantentzeko oinarriko zerbitzuen kudeaketa hobetzea. "Bestetik, trafikoaren eta aparkalekuen eta etxebizitza arazoei aurre egiteko Udalak dituen eskumenak ezagutzeko asmoa ere badugu, besteak beste", azaltzen dute.

Legegintzaldia nondik nora joango

den jakiteko oraindik goizo dela diote: "Udal Gobernuaren osatzen duten pertsonak berriak dira, alkatea izan ezik, eta ohikoa den bezala 100 egun eman diezazkiegun nola ekiten dioten ikusteko". Dena den, hasiera ez dela batera "lasaitzekoa" diote.

Uztailaren 14ko plenoan batzordeen eraketak eta batzordeburuak zein izan ziren jakinarazi zen, eta ondoren, batzordeak biltzeko eta lanean hasteko deialdiak luzatzen hasteko txanda heldu da: "Plenotik lau egunera Zumaia Lantzeneko kontseilua eta Ogasun batzordea konbokatu zituzten, eta baita pertsonalekoa ere. Arazo larriren bat dago, nonbait, presa handia duena", diote EAJkoek.

Kanpaina hasi zenetik azaldu du EAJk alderdi guztiekin elkarlanean aritzeko borondatea eta prestutasuna: "Beti ere gure programa oinarri hartuta desadostasunak kokatu eta horiei buruzko adostasunak bilatzeko gai garen heinean".

PSE-EEko zinegotzi bakarra Emiliano Cabañas izango da. Aurreko legegintzaldian bi zinegotzi ziren, eta oraingoan bat bakarra izatea, ez omen da aldaketa handia ordea: "Aurreko legegintzaldian Zumaia kontu gehienak nik ematen nituen alderdi barruan, eta bakarra izate horrek ez nau arduratzen. Gainera, orain artean Batzar Orokorretan ere izaten nintzen, baina hemendik aurrera ez naizenez izango, Zumaia dedikazio handiagoa eskaintzeko aukera izango dut", dio.

Datorren legegintzaldiari begira, "aldaketaren eta udaleko bizikidetzaren hobearren" legegintzaldia izatea espero du. "Elkarriketarako legegintzaldia izatea nahi dut", gaineratzen du.

Aralar Udal Gobernuan sartzean aldaketarik ez dagoela uste du: "Lehen ere ez zuen oposiziorik egiten. Aurreko legegintzaldian, Agirrezabalaga alkate izateko botoa eman zuten, eta gero ere oso momentu zehatzetan egin zuten Udal Gobernuaren kontra", azaltzen du.

*se repitan las discusiones de la legislatura anterior, y estera que el diálogo y el trabajo conjunto sean las bases de esta nueva era.*

#### **Oposición**

*Los próximos cuatro años les tocara hacer oposición al PNV y PSE-EE.*

*Para ello, PNV cuenta con un concejal más que en la anterior legislatura, y PSE-EE con uno menos. El PNV ya ha marcado sus objetivos para mejorar Zumaia. Para ello, dice que es necesario hacer un planteamiento económico financiero en el ayuntamiento, para que Zumaia no se quede sin inversiones.*

*Por su parte el concejal del PSE-EE Emiliano Cabañas espera que sea la legislatura del diálogo: "Espero que sea época de cambios y de respeto", añade. Por su parte, dice que el cambio de Aralar de la oposición al Equipo de Gobierno no es importante, "ya que antes tampoco hacía oposición", señala el socialista.*

# Itsasadarraren garbiketa, auzolanean



**e**lkarlana eta auzolana. Zumaia-ko Udalak herrian, herritarrekin batera elkarlana eta auzolana bultzatzeko ahaleginak egin izan ditu, eta hasi berria den legegintzaldian ere helburu berarekin hasi du.

Urte askoan, ekintza ezberdin ugari egin izan dira elkarlanean, herritarrek eta Udalak batera antolatuta. Azken urteotan horrelaxe antolatzen da Urola itsasadarraren garbiketa. 2004. urteaz geroztik, Olarru Sub ur azpiko jardueretan aditua den kirol elkartearekin elkarlanean urtean bi aldiz garbitu ohi da itsasadar hori. Aurtengo udarako ere bi data jarriak dituzte. Lehen garbiketa uztailaren 30ean egingo dute, eta bigarrena abuztuaren 27an. Beti ere, eguraldia lagun badute. Izan ere, euri asko egiten badu eta ura zikinduta izaten da, eta eguna aldatu beharrean izango dira.

Egun bakoitzean zati bat garbituko dute. Uztailaren 30ean zubi txikitik Narrondorako tartea garbituko dute. Eta abuztuaren 27an, berriz, kai berria garbitzeko lanak egingo dituzte.

**Uztailaren 30ean eta  
abuztuaren 27an Urolako  
Itsasadarra garbituko du  
Olarru Sub herriko taldeak**

Aitor Leiza Zumaia-ko Udalaren Ingurumen Zinegotzia, zinegotzi izateaz gain, Olarru sub taldeko kide ere bada, eta behin baino gehiagotan hartu izan du parte ekintza horretan. Ekimen "oso ona" dela iruditzen zaio itsasadarra garbitzearena. Hala ere, "kezkatzekoa da zenbat zabor jasotzen den, oraindik ere, ibaieran", aitortzen du Leizak.

**e**l Ayuntamiento de Zumaia tiene como objetivo impulsar la colaboración ciudadana y el trabajo en equipo. El Ayuntamiento y la ciudadanía llevan muchos años llevando a cabo proyectos conjuntamente. Uno de esos proyectos es la limpieza de la ría de Zumaia.

Desde el año 2004, la asociación Olarru sub de Zumaia, que promueve actividades bajo el mar, limpia la ría dos veces al año. Dicha asociación ya ha fijado las fechas de limpieza de este año. Lo harán el 30 de julio y el 27 de agosto, siempre que el tiempo los acompañe.

Según el concejal de medioambiente, Aitor Leiza, este proyecto de limpieza es muy bueno e importante para

Olarru sub taldeko Ander Unanueren arabera, "egia da, garai batean jasotzen genituen zaborrak askoz ere kutxakorrangoak zirela orain jasotzen ditugunak baino. Baina oraindik ere zabor asko jasotzen dugu". Garai batean edozer botatzen zen ibaietara. Urak ezkutatzen edo eramaten dituen zaborrak, zabortegi gisa ere erabiltzen zituen zenbaitek. "Gu itsasadarra garbitzen hasi ginenean baporeetako bateriak zaharrak etxeko tresna elektrikoak... denetik aurkitzen genuen. Orain, egia da, horrelako ezer ez dugula aurkitzen", azaldu du Unanuek. Hala ere, zabor asko ateratzen dute oraindik ere: obretako tresnak, bizikletak, errepideetako seinaleak, supermerkatuetako karroak... denetik aurkitzen dute: "Urtero dozena erdi bizikleta aterako ditugu ibaitik oraindik!", dio.

Aitor Leizaren arabera, "horrelako egunetan eta horrelako ekintzekin konturatzen gara, oraindik ere zenbat zikinkeria dagoen gure erreka eta ibaietan. Eta jasotzeko asko badago, jendeak oraindik ere jendeak botatzen dituen seinale", dio. Seinale txarra, beraz.

## Ur azpia afizio

Olarru sub taldekoak ur azpiko jardueren inguruan aritzeko elkartzen dira, eta afizio horrek eman zituen itsasadarra garbitzeko ekimena abian

jartzera. "Gu ur azpian aritzen gara, eta itsasadarrean sartzen hasi ginen orain dela urte asko. Orduan ikusi genuen zenbat zikinkeria zen ur azpian, eta garbitze lanak egitea pentsatu genuen. Orduan urtero-urtero egin ohi dugu", azaltzen du Unanuek.

Garbiketa egunean bertan, 20 bat lagun ibiltzen dira lanean. Batzuk urpetik ateratzen dute zaborra, eta besteak ibaiaren ertzean aritzen dira zaborra atera eta biltzen.

Hala ere, bilketa ez da egun batera biltzen. Izan ere, bilketa baino egun batzuk lehenago, marea behean dagoenean itsasadarra arakatzeko dute, eta zaborra non dagoen seinalatzen

**Itsaso azpitik denetariko trasteak topatu izan dituzte: bizikletak, bateriak, obretako trasteak, karroak...**

dute. Ondoren, garbiketa egunean bila ibili beharrik ez izateko.

Ekimen honetan parte hartu nahi duten herritarrik bada, eta itsasadarra garbi mantentzeko bere arroz aletxoak jarri nahi badu, Olarru sub taldeko kideren batekin harremanetan jarri besterik ez du egin behar. Uretara sartzeko lizentzia behar da, eta ezin da edonor sartu, baina ibaiaren ertzetik laguntzeko gogoia besterik ez da behar.



*el pueblo. Pero recalca que "es preocupante que aún se recojan tantos residuos en la ría. Ander Unanue, miembro de Olarru Sub, por su lado, señala que, "antes, en los primeros años, se recogían residuos mucho más contaminantes, como las baterías de los barcos".*

*Hace años se echaba cualquier cosa a los ríos, como electrodomésticos, baterías... Se podía encontrar cualquier cosa, ya que el agua parece que lleva todo o esconde todo.*

*Ahora, ya no aparecen tantas cosas, pero aún, cada año sacan bastantes bicicletas, señales de tráfico o carros de supermercado.*

*"En esos días de limpieza te das cuenta de lo sucio que están los ríos. Y si los ríos aún están sucios, es porque la gente aún echa los residuos a los ríos en vez de a los vertederos", señala Leiza. Parece que en la sensibilización sobre el medioambiente aún hay pasos que dar para obtener una Zumaia limpia.*

## Afición bajo el mar

*Para los días de limpieza, Olarru sub cuenta, más o menos, con un equipo de 20 personas.*

*La mitad del equipo trabaja bajo el agua, y la otra mitad ayuda desde los laterales de la ría, desde las orillas. Cualquier ciudadano o ciudadana que quiera ayudar en esta actividad solo tiene que ponerse en contacto con algún miembro de la asociación Olarru sub.*



Argazkia: Imanol Manterola

## Zumaia ezagutarazteko pauso egokiak emanaz

**U**da garaia izaten da gehienontzat opor garaia. Sasoi horretan gertuko nahiz urrutikoak ikusi ahal izaten dira Zumaian. Oporretan. Oporraldia pasatzen, edo oporraldiaren egun bat edo beste gurean pasatzen.

Azken urteotan, ondo pentsatutako apustua egin du Zumaiako Udalak arlo horretan. 2002an sortu zen turismo bulego iraunkorra, eta ordurako ondo landutako apustua adostua zuen Udalak. 2002tik, beraz, bide eta filosofia berari jarraituz egin da lana, eta bide hori ari da bere fruituak ematen. Arritxu Gonzalez Turismo eta Merkataritza zinegotziaren ustez

“aurretik hartu diren erabakien fruituak ari gara jasotzen orain”, dio. Bide beretik segituko dute lanean aurrerantzean ere: “Natura errespetatuz, turismo jasangarria bultzatuko dugu hemendik aurrera ere, eta gure kultura zein hizkuntza zabaltzeko aukerak aztertuko ditugu”, gaineratzen du.

Azken urteotan, Deba eta Mutrikurekin batera osatutako Geoparkearen proiektua garatzen aritu dira Zumaiako Udalaren zenbait sail, tartean, Turismo, Ingurumen eta Kultura sailak. Izan ere, arlo askotatik sakondu da, hain zuzen ere, Geoparkeen proiektuan.

Azkenean, iaz Geoparkeen sarean sartu zen Deba, Mutriku eta Zumaiako Geoparkea, . Urte askoan landutako proiektua da hori, elkarlanean. Hiru herrietako turismo, ingurumen zein agintariak hilabete luzez egindako lanaren ondorioa izan zen,. Baina herrietako eragileekin aparte landu eta osatu ere egin zen. Gaur egun ere, proiektu honetan buru dabilta Turismo Saileko teknikariak.

Geoparkea ezagutzeko bisita gidatu ugari izaten dira, eta aurtengo udan ere aukera ugari eta ezberdinak izango dira Zumaian gure kostaldea ezagutu eta lurraren historiaz gehiago jakiteko.

**e**l verano suele ser época de vacaciones. De andar de un lado para otro. Y en zumaia se nota enseguida, por el aumento del turismo. Desde hace años Zumaia siempre apuesta por un turismo sostenible y sin grandes masificaciones. Desde 2002 Zumaia siembra en

un mismo sentido. Y al cabo de los años esta recogiendo la cosecha. En este sentido, el nombramiento Geoparke de la Costa Vasca ha sido muy importante. Este proyecto se ha elaborado conjuntamente con los ayuntamientos de Deba y Mutriku, y los diversos agentes de los pueblos. Es de destacar el trabajo realizado por todos.

Según Arritxu Gonzalez, concejala de Turismo y Comercio del Ayuntamiento de Zumaia: “Seguiremos trabajando en estemismo sentido que hasta ahora. Promoveremos actividades que tengan relación con nuestra identidad, nuestra cultura o nuestra lengua ... y como no, intentaremos que siempre serespere en medioambiente en nuestro alrededor”, aclara.



Zumaiako Turismo Sailak herriko zein kanpoko erakunde zein eragileekin egiten du lan; Urola Kostako Udal Elkartearen bidez ere aurrera eramaten dituzte hainbat ekimen. Baina kanpoko zein herrian bertako turistak ere zaindu nahi ditu Udalak. Hala, aurtengo udaberrian San Jose komentua ezagutzeko

aukera bikaina izan dute herritarrek zein kanpotarrek. Izan ere komentua bisitatzeko aukera bikaina izan dute

### Euskadi saria

Flyscharen ibilbideak, Mutriku, Deba eta Zumaia arteko 12 kilometroko ibilbide ikusgarriak

2010eko Turismoko Euskadi Saria jaso zuen pasatu den azaroaren 17an. "Flyscharen ibilbideari egindako errekonozimenduan baloratu beharrekoa guztien arteko kolaborazioa da", azaldu zuten arduradunek, saria eman aurretik.

### Herriko eragileak

Turismoaz gain, eta Zumaia egaturazi nahi izateaz gain, Zumaiako Udala jakitun da, Zumaia bizi bat lortu behar dutela. Bide horretan, ezinbesteko bidelagun bat suertatu da: Zumartian plataforma.

Plartaforma horren bidez, herriko merkatari eta ostalariek ekintza ezberdinak antolatzen dituzte, eta Zumaiarrak kalera atera eta alboko herrietako herritarrek Zumaiara ekartzeko ahalegin berezia egiten dihardute aspaldian. Arritxu Gonzalez arabera, "pozgarria da horrelako ekintzak antolatzen dituen talde bat herrian izatea".



Argazkia: Gorka Zabaleta

#### Premios

Para la oficina de Turismo de Zumaia tanto el nombramiento del Geoparque como el premio Euskadi de turismo son muy importantes para seguir trabajando en el mismo sentido.

#### Zumartian

Para atraer a los turistas es muy importante tener un pueblo vivo, y en este sentido el ayuntamiento de Zumaia tiene un gran socio, a la plataforma Zumartian. Dicha

plataforma organiza distintas actividades para realizar en el pueblo. "Es de alegrarse tener en el pueblo una plataforma de este nivel", asegura la concejala Arritxu Gonzalez.

## Odieta auzoa eraberrituta



**O**dieta auzoa erabat eraberrituta izango da laster. Dagoeneko, Odieta frontoia eta haren inguruak irekita daude. Uztailaren erdi aldera ireki zen frontoia, eta ordudunik erabiltzeko moduan dago.

Odieta ingurua eraberritzeko lanen baitan, etxebizitza zaharrak bota eta berriak ere egin dira. Etxebizitza berri horiek ere bukatzen ari dira, eta udazkenerako erabat bukatuta izango dira.

### Etxebizitzak salgai

Hiru etxe-atari berri egin dira eraberritze horretan, eta 13 etxebizitza salgai daude. 60 eta 80 metro koadro bitarteko 13 etxe, trastelekuak eta lokalak salgai ditu Zumaia Lantzenek. Merkatu librean salduko dira oraingoan etxebizitzak, eta edonork eskuratu dezake horietako etxe bat. Hau da, ez da beharrezkoa Zumaian erroldatuta

egotea Odietako etxebizitza erosteko.

Etxebizitzen prezioari dagokionez, 232.000 eurotik (+ BEZ) 286.000 euro (+ BEZ) arteko salneurria dute etxeek. Etxeek, sukaldea jarrita dute, dagoeneko.

### Trasteleku eta lokalak

12 trasteleku eta bi lokal ere salgai daude. Trasteleku bakoitzak 3 metro koadro ditu, eta 5.700 euroko (+ BEZ) prezioa dute. Lokalak egiteko, berriz, 139 metro koadro inguru daude (bat edo bi egiteko aukera dago), eta 1.717 euro (+ BEZ) metro koadroko prezioa du.

Etxebizitza, trasteleku edo lokalen bat erosteko interesdunek, zein informazio gehiago jaso nahi dutenek, Zumaia Lantzenera jo beharko dute. Horretarako, Zumaia Lantzenek udaletxean dituen bulegoetara joan daiteke. Edo bestela, deitu telefono

honetara: 943 14 34 15. Edo idatzi helbide elektronikoa honetara: [zumaialantzen@zumaiaokoudala.net](mailto:zumaialantzen@zumaiaokoudala.net).

**P**ronto se terminarán las obras de rehabilitación del barrio Odieta. Desde mediados de julio, ya están abiertos el frontón y sus alrededores, y para finales de agosto, ya estarán finalizadas todas las obras de dicho barrio. Con ello, la plaza Eusebio Gurrutxaga tendrá otro aspecto.

*En esta rehabilitación, se han construido nuevas casas, y están a la venta 13 de esas viviendas. Cualquiera que tenga interés o quiera más información tiene que ponerse en contacto con Zumaia Lantzen. Para ello pueden llamar al 943 14 34 15 o escribir a [zumaialantzen@zumaiaokoudala.net](mailto:zumaialantzen@zumaiaokoudala.net).*

# Abuztuan musikak beteko du Zumaia



**a**buztuaren 1etik 13ra bitartean musikak hartuko du Zumaia. Izan ere, aurtengo Musika Jaialdia abuztuaren lehen bi asteetan izango da. Egun horietan guztietan, musika mota ezberdinetako kontzertu ugari entzuteko aukera izango da herriko txoko ezberdinetan. Tartean musika proiektzio eta hitzaldiak ere izango dira, ordea.

## Egitaraua

- 1, astelehena: 22:00etan parrokiaren, KUP abesbatzaren kontzertua
- 2, asteartea: 22:00etan Alondegian, Musika proiektzioa
- 3, asteazkena: 20:00etan Alondegian, hitzaldia "Musika zientziaren uhinetan"
- 4, osteguna: 22:30ean Mari kalean Musika eta zinea SILENT BAND "CHAPLIN".
- 5, ostirala: 20:00etan Komentuan ATENAIDE ENSEMBLE – bibolina, biola-gamba eta klabea. Aintzinako Musika.
- 6, larunbata: 20:00etan Mari kalean Jazz kontzertua: NEVERMIND TRIO + JULEN IZARRA. 23:30ean beheko plazan, SAN PEDRO ABESBATZAREN SHOWA
- 7, Igandea. 20:00etan komentuan HERNASAX CONCIERTO GROSSO
- 8, astelehena: 22:00etan Alondegian, Musika proiektzioa
- 9, asteartea 22:00etan Komentuan, PELLO RAMIREZ eta XABIER ZEBERIO "ON bikotea"
- 10, asteazkena: 20:00etan Komentuan, THE RIVOLI STRING QUARTET eta JOSE MARI AZKUE. Soka laukotea eta Oboea
- 11, osteguna: 20:00etan plazan YOUTH BRASS 2000 BANDA
- 13, Larunbata: 22:00etan Maria eta Jose antzokian NICHOLAS ANGELICH piano kontzertua

## Uztailaren 14

**1- Udal talde politikoen eta bakoitzaren bozeramaileen berri eman zen. Honakoak izango dira Udal talde Politikoak legegintzaldi honetan:** Bildu, EAJ-PNV, PSE-EE eta Aralar

**2- Batzorde informatibo iraunkorren eraketa eta osaketaren berri eman zen (begiratu aldizkari honetako errortaje nagusia, han daude zehaztuta)**

**3- Alkateak hartutako erabakien berri ematea, ondorengo gai hauetan:**

**3.1- Alkateordeen izendapenak.**

1. Alkateordea: Arritxu Gonzalez

2. Alkateordea: Iñaki Ostolaza

3. Alkateordea: Azis Alberdi

**3.2- Tokiko gobernu batzarraren kideak:**

Iñaki Agirrezabalaga

Arritxu Gonzalez

Iñaki Ostolaza

Azis Alberdi

Aitor Leiza

**3.3- Batzorde informatiboetako lehendakariak (ikus, 9. Orria).**

**3.4- Alkatetzak egoki deritzone gaitako eskuordetzeak azaldu ziren:**

A) Tokiko gobernu batzarraren alde.

B) Tokiko gobernu batzarraren maiztasunak finkatu zen.

**4- Udal plenoaren batzarraldietarako maiztasuna zehaztu zen.**

**5- Udalbatzako ordezkarien izendapena Udalak ordezkari-**

**tua egon behar duen era guztietako organo kolegiatueta-rako.**

Udal Elkarteak: Iñaki Agirrezabalaga, Azis Alberdi, Montse Arana

Uren Partzuergoa (alkatea izaten da): Iñaki Agirrezabalaga

San Juan Egoitza (alderdi bakoitzeko kide bat): Iñaki Agirrezabalaga, Montse Arana, Emiliano Cabañas, Aitor Leiza

Urkome: Iñaki Agirrezabalaga, Aitor Leiza

Musika Patronatoa: Iñaki Agirrezabalaga (Lehendakaria) eta Eneko Agirre, Montse Arana, Juan Carlos Zendoia, Aitor Leiza, Emiliano Cabañas (Kultura Batzordeko kideak)

Eskola Kontseilua (Hezkuntza batzordeko kideak): Azis Alberdi, Iñaki Ostolaza, Edurne Egaña, Montse Arana, Emiliano Cabañas, Aitor Leiza.

EUDEL: Iñaki Agirrezabalaga

Zumaia Lantzen: Iñaki Agirrezabalaga, Arritxu Gonzalez, Iñaki Ostolaza, Edurne Egaña, Ana Arranz, Emiliano Cabañas, Aitor Leiza

Kirol Portua: Iñaki Agirrezabalaga, Arritxu Gonzalez, Montse Arana, Aitor Leiza, Emiliano Cabañas.

**6- Hautetsien ordainketak. Iñaki Agirrezabalaga Alkatea egun osoko lanaldian liberatzea onartu zen.**

Alde bozkatu zuten Bildu (5) eta Aralarrek (1). Abstenitu egin ziren EAJ-PNV (4) eta PSE-EE (1). Udalhitzen arabera, 19. mailako soldata jasoko du, 41.022,66 euro urteko (gordina). Hilean, 2.016 euroko soldata garbia izango du.



**e**ratu da legealdi berri honetako Udala. Zumaian abertzale eta ezkertiarren arteko Udal Gobernuaren eraikiko dugu, ezberdinen arteko elkarlanaren bidean sakonduz, hori islatzen du Bildu eta Aralar-en artean lortu dugun akordioak.

Edozein kasutan, Bilduk kanpainen esandakoari jarraiki, Udal ireki eta parte hartzaile baten aldeko apustua egiten du, bai barnera begira, eta baita kanpora begira ere. Barnera begira bi zentzutuan:

Politikoki, udala ordezkatua dagoen erakundeetan, talde politiko guztien parte hartzea bermatu dugu. Gobernu batzordeetan ere talde politiko guztiek parte hartzeko aukera bermatuko dugu.

Udal langileekin elkarlana ere garrantzitsua izango da. Beraien iritzia eta eskarmentua kontutan hartuz egingo dugu lan.

Kanpora begira berriz, aurreko legealdiko filosofiari eutsiko diogu:

Zinegotzietz gaindiko ordezkariak batzordeetan egotea ahalbidetuz eta gai garrantzitsuen erabakiguneetan herritarrei hitza emanez, prozesu parte hartzaileen ekimena mantendu eta bultzatuko ditugu.

Uztailaren 14an osatu zen Udala, eta ordutik hona batzorde eta bilera ezberdinak egin dira. Lanean dihardugu gure udala geratu ez dadin. Mahai gainean, etorkizun hurbilenean dauden gai batzuen inguruko erabakiak hartu beharra dago. Horregatik soluzioak eskaini eta denborarik galdu gabe neurriak hartzera goaz. Horretarako, noski, denok arduraz jokatzeko eskatzen du.

Legealdi berriak aukera berriak ekarriko ditu, elkar lanerako, egiteko modu berriak martxan jartzeko, ea denon artean aukera aprobeztatzen dugun. Gure jarrera eta intentzioa behintzat ez da faltako.



**U**da giroa nabaria da gure herriko txoko guztietan; alaiagoa eta zaratatsuagoa agertzen da Zumaia egun hauetan, bertako zein udatarren gozamenerako aukeraz oparo.

Zumaiaren historia eta ohiturak alegia, gogora ekarri nahi ditugu eta azken urteetan ez dakigu ondo zein arrazoi edo asmorekin, errenkan dabilzan "Sanpedruak" aldarrikatu nahi genituzke eta aipamen berezi bat egin tanborradan hain bikain aritu ziren herritarrei. Tamalez, kaleetan erantzun eta laguntza eskasa izan zuten arren, benetan bikaina egindako lana. Mila esker benetan eta eutsi horri!!!

Festa eta hondartza giro honetan ekin diogu bada, udal agintaldi berriko jardunari. Eta ekin eta berehala agerian jarri da EAJren ustez agintaldi honetako arazo nagusia: udalaren egoera ekonomiko larria, nahiz eta oso ona zela esaten aritu zitzaizkigun udal gobernuan egon direnak, baino "gezurrak buztana motz".

Lanean hasi eta berehala Zumaia Lantzen-eko bilera eta Ogasun batzordea deitu dira. Zumaia Lantzenen egoera finantzieroa oso larria da, udalarengana jo du ia bi miloitako mailegu bat eskatzera. Udalak diru hori lortzeko zorpetu egin beharko du eta lehendik hartuta duen zorrari beste bi miloi gehitu. Gure ustez Zumaia Lantzenen arazoa ez da finantzieroa estrukturala baizik eta zor hauek epe laburrera kitatzeko izango duen ahalmenaz zalantza handiak ditugu. Zumaia Lantzenen eredu berria Zumaiako udaleko aurrekontua hipotekatzen ari denaren beldur gara eta egin beharreko hausnarketa Zumaia Lantzenekin jarraitzeak zentsurik ba duen edo ez dela uste dugu.

Eta hau gutxi ez dela, Frontoi berriko obra "ondo lotuta" utzi omen zuen aurreko gobernuak, maiatzean, azken momentuan, egindako plenoan. Baina orain nonbait arazoak daude. Bitartean pertsonal politika eskuzabalarekin eta zenbait zerbitzuen kalitate maila murrizten.

Honek EAJ-ren ustez agintaldi honetako egiteko nagusia izan beharko lukeena aipatzera garamatza: egoera ekonomiko larriak eskatzen duen plangintza ekonomikoa egin eta hartu beharreko murrizketa neurriak hartzea, herriko zerbitzuen maila egokia eta kaleen egoera eta txukuntasuna bermatuz, alegia



**e**l día 14 de Julio se celebró el pleno extraordinario, para designar comisión de gobierno, tenientes de alcaldía, áreas de gestión, comisiones informativas y representación de los grupos y concejales en las mismas, así como consejos de administración de entidades dependientes o participadas por el Ayuntamiento, una toma de contacto con la nueva corporación desarrollado en un clima de tranquilidad esperamos que este se mantenga para todo el mandato.

El día 18 de Julio se celebró el primer consejo de administración de Zumaia Lantzen y posterior comisión de hacienda, donde se ratificó la crítica situación económica de la empresa y la necesidad de implicar al Ayuntamiento en la misma, de todas formas para los concejales que ya estuvimos participando de la gestión del anterior mandato, denunciarnos una y otra vez la nula voluntad política para intervenir para la comisión de gobierno y por lo tanto la necesidad de endeudamiento de Zumaia Lantzen, sin ingresos para a corto plazo, y la necesidad de gasto en los terrenos de punta nueva, odieta y demás, cada vez era mayor con sus correspondientes intereses a pagar a los bancos, dinero este que sale de los impuestos de todas y todos los Zumaiarras, no merece la pena recordar todas y las críticas que recibimos cada vez que exponíamos esta situación, por parte de la comisión de gobierno, tratándonos de mentirosos, entre otras muchas alabanzas, pero como solíamos decir el tiempo nos dará la razón, (como así ha sido), y mira por cuanto una vez celebradas las elecciones, se reconoce no solo la situación económica de Zumaia Lantzen, como también la solución que ya pedíamos entonces que era la intervención del ayuntamiento como único accionista de la sociedad y por lo tanto responsable de la situación económica de la misma y de su solución todo esto para comprobarlo, basta con mirar las hemerotecas.

Así como también se aprobó una modificación presupuestaria para pagar el IVA del nuevo frontón, esto en el mes de Febrero, y resulta que no sirvió para nada porque no existían los 600.000 euros de donde se pedía gastar. ¿O sí lo había y se siguió gastando en otras cosas?.



**Z**umaiaiko Aralarreko kideok pozik gaude azken hauteskundeetako emaitzekin. Izan ere, azken urteotan Udalak izan dituen hainbat gobernagarritasun arazo konponbidean jartzeko aukera sortu dela iruditzen zaigu. Badirudi orain posible izango dela aurrekontuak adostea, eta gobernagarritasun minimo bat ziurtatzea.

Eta ez hori bakarrik. Badirudi aukera gehiago daudela gobernu eta oposizioaren arteko harremanak hobetzeko, tentsio maila pixka bat baretzeko. Arazoak ez dira desagertuko, eta egon badaude. Udalaren egoera ez da behar bezain ona, eta krisiak arazoak areagotu egin ditu. Baina gutxienez tentsio gutxiagorekin eta komunikazio gehiagorekin jarduteko aukerak zabaltzen dira legegintzaldi honetan.

Bestetik, esan behar dugu Bilduren aldeko botoa eman izana ez dela izan askok uste izan duten bezain erabaki erraza. Egia da ideologiaren aldetik hurbilago gaudela EA, Alternatiba eta Ezker Abertzalearen arteko koaliziotik. Baina beste alderdiekin dugun harremana ez da txarra eta askotan, herri mailako hainbat planteamendutan, adostasun bideak irekitzeko aukerak ere ikusten ditugu.

Aralarren politika egiteko eta politikan eragiteko asmoa izan dugu beti, eta Bildu babesteko orduan zalantza batzuk izan baditugu ere, ezkerreko politikak bideratzeko aukera honi ezezkorik ezin geniola eman iritzi genuen. Aurreko legealdian EA eta ANVren artean osatu zuten gobernuaren jardunarekin ez gara beti ados egon, baina oraingo lan taldearengan konfiantza gehiago daukagu. Bestalde, bakegintza eta normalizazio politikoaren arloan, Bilduko kideek gurekin batera adosturiko Gernikako akordioak eta horrez gain, Sorturen estatuetan adierazirikoa oinarri harturik, Euskal Herrian jardun politikoan bortizkeriak saihesteko asmoa zintzoa delakoan gaude, elkarrekin aurrerapausoak emateko bideak irekiz.

Aralarren apustua herritarrek herritarrentzat lan egitea da, hau da, udalean dauden talde guztiekin batera aurrerabideak adostea, guztion hitza aintzat hartzea eta beharrezkoa denean eztabaida zabaltzea. Ez da erraza gobernatzea, baina asmo zintzoz jarduteko konpromisoa hartzen dugu.

# agenda abuztua agosto / iraila septiembre

## Abuztua / Agosto

### Erakusketak / Exposición

Uztailaren 28tik abuztuaren 14ra: DISTIRA elkartearen Argazki Erakusketak kolektiboa.

*Del 28 de julio al 14 de agosto: Exposición colectiva de la asociación fotográfica Distira.*

Abuztuaren 16tik 31ra Kaleko Pintura Lehiaketa.

*Del 16 al 31 de agosto: Concurso de pintura al aire libre.*

Irailaren 2tik 18ra Olaro Eguneko Argazki Rallyak.

*Del 2 al 18 de septiembre: Rally Fotográfico de Olaro Eguna.*

Irailaren 23tik urriaren 16ra : MLDJ- 2011 Egitasmoa : Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martínez Suárez eta Jon Otamendi.

*Del 23 de septiembre al 16 de octubre: proyecto MLDJ- 2011: Manu Uranga, Lorea Alfaro, David Martínez Suárez y Jon Otamendi.*

### Abuztuaren 1etik 13ra Musika Jaialdia. *Del 1 al 13 de agosto festival de música.*

21:45ean Zine Forum *Whinter's bone.*

*Cine Forum 'Whinter's bone'.*

### Osteguna, 4 Jueves

07:30etik 12:00etara Kabra eta Dontzeilen XXXVI. arrantza lehiaketa.

*De 07:30 a 12:00 h. XXXVI Edición de concurso local de pesca de Cabras y Doncellas.*

### Larunbata, 6 Sábado

09:00etatik 12:00etara ARRAN TXIKIEN XXXVII. arrantza lehiaketa.

*De 09:00 a 12:00 h. XXXVII Concurso intersocial de pez chico.*

11:00etatik - 13:00etara, arranplan, urpekaritzako bataioa. *Desde las 11:00 a 13:00, en la rampla, bautizo de submarinismo.*

### Gala Gaua/ Noche de Gala.

20:00etan Mari kalean, Nevermind Trio eta Julen Izarra.

*20:00 h. En la Calle Mari, Nevermind trio y Julen Izarra.*

23:30ean Beheko plazan, San Pedro Abesbatzaren Showa.

*23:30 h. En la Plaza Eusebio Gurrutxaga, Show de San Pedro Abesbatza.*

Jarraian, Oihan Vegarekin Gala diskoteka.

*A continuación, discoteca de Gala con Oihan Vega.*

### EUSKAL JAIA. Ostirala, 12 Viernes

10etan hasita, EUSKAL JAI EGUNA: musikaz blai, "Hala Gera" albokariak, Iturengo Joaldunak, Trikitxas trikitilariak eta Ugarte Anaiak txalapartariak

*A las 10.00 h. comienza con música el día de EUSKAL JAIA: los albokaris HALA GERA, los joales de Ituren, los trikitilaris TRIKITXAS y los txalapartaris Ugarte Anaiak*

10:00etatik 14:00etara Alde Zaharrea, artisauak eta elikagai postuak.

*Desde las 10:00 h. hasta las 14:00 h. En la Parte Vieja, diferentes puestos de artesanía y alimentación.*

12:00etan Upela plazaren parean, SALDA. 12:00 h. *frente a la plaza Upela, Caldo.*

12:30ean balkoitik balkoirako Bertso Saioa Sanjuaniturrin: Aitor Mendiluze eta Aitor Sarriegi. 12:30 h. *En San Juan Iturri actuación de bertsolaris de balcón a balcón.*

13:00etan Upela plazatik, Zumaiaiko kantuzaleen kalejira. 13:00 h. *Desde la plaza Upela, pasacalle de Zumaiaiko Kantuzaleak.*

14:30ean, BAZKARI HERRIKOIA: paella erraldoia. (Txartelak salgai Turismo bulegoan abuztuaren 5etik aurrera).

*14:30 h. COMIDA POPULAR: paella gigante (venta de entradas en la oficina de Turismo a partir del 5 de agosto).*

Bazkaria alaitzen, kantu-saioak Joxe Mendizabalekin.

*Amenizando la comida, actuación de JOXE MENDIZABAL.*

18:00etan hasita Ostolaza eta Txapartegi trikitilariekin ERROMERIA

18:30ean SAGARDO DASTAKETA. Ordu berean, Iraunkorrak txarangaren kalejira.

*Desde las 18:30 h. pasacalle de la txaranga IRAUNKORRAK.*

22:30ean, Kofradian, erromeria BIDE BATEZ taldearekin.

*22:30 h. En la Cofradía, ROMERÍA con el grupo BIDE BATEZ.*

### Astelehena, 15 Lunes

KALEKO PINTURA LEHIAKETA.

*CONCURSO DE PINTURA AL AIRE LIBRE.*

### Larunbata, 20 Sábado

KUADRILA EGUNA

*DIA DE LA CUADRILLA.*

### Abuztuaren 22tik 29ra, 22:30ean Aita Mari, UDAKO ZINEA. *Del 22 al 29 de agosto, a las 22:30 h. en Aita Mari, CINE DE VERANO*

Astelehena, 22 "VALOR DE LEY". *Lunes, 22 "VALOR DE LEY".*

Astearte, 23 "NO CONTROLES". *Martes, 23 "NO CONTROLES"*

Asteazkena, 24 "EL MUNDO SEGUN BARNEY".

*Miércoles, 24 "EL MUNDO SEGÚN BARNEY".*

Osteguna, 25 "MEDIANOCHE EN PARIS". *Jueves, 25 "MEDIANOCHE EN PARIS".*

Abuztuak 26/27/28/29 "ARRIYA". *26/27/28/29 De agosto "ARRIYA"*

### Abuztuaren 23tik 28ra SANBARTOLOMEAK OIKIAN. *Del 23 al 28 FIESTAS DE OIKIA.*

### Larunbata, 27 Sábado

19:00etan Kofradian, haur berbena JOXE MENDIZABALEkin.

*19:00 h. En la Cofradía, verbena infantil con JOXE MENDIZABAL.*

22:30ean Itzurun hondartzan 'Brasil Rua Live' erakustaldia.

*En la playa de Itzurun 'Brasil Rua Live'.*

### Igandea, 28 Domingo

19:00etan Torreberriko aterpean, "LURRIK UKITU GABE" Akrobazia ikuskizun eta tailerra. 19:00 h. *En Torreberri, espectáculo de acrobacia y taller: "LURRIK UKITU GABE"*

### Asteazkena, 28 Miércoles

Eskubaloiko uda txapelketa. Akaba Bera-Bera / Itxako. Lubaki kiroldegian.

*Campeonato de verano de balonmano. Akaba Bera-Bera / Itxaso. En el polideportivo Lubaki.*

## Iraila / septiembre

### Larunbata, 10 Sábado

19:30ean Amaiaiko plazan, Latinoamerikar musika HORIZONTES taldearekin. 19:30 h. *En la plaza Amaia, Música latinoamericana con el grupo HORIZONTES.*

22:30ean kiroldegian Boxeo Gaua.

*En el polideportivo, noche de boxeo.*

### OLARRO EGUNA. Larunbata, 17 Sábado

### Igandea, 25 Domingo

Eguerdian, GARAI BATEKO AUTOEN ERAKUSTALDIA

Parolmuturretik Erriberan zehar.

*Al mediodía, desde la punta del faro, cruzando Erribera, EXHIBICIÓN DE COCHES ANTIGUOS.*

